

BERARIAZKO SARBIDE-PROBA

Zaldiketa

Erdi-mailako amaierako zikloa

1. Zaldiz ibili aurretik, hautagaiak jauzi-ibilbidea ebaluatu du; trazadura ezagutu eta bere ezaugarriak aztertu ditu, bai eta oztopo bakoitzarenak ere. Balorazio hori oinarri, erabaki teknikoak hartuko ditu zaldiz ibili bitartean.

- a. Banan-banan ezagutu ditu jauzi bakoitzaren ezaugarriak.
- b. Ibilbidearen diseinu-ordena aztertu, eta trazadurarik egokiena aukeratu du.
- c. Konbinazioa osatzen duten oztopoen arteko distantziak eta bide baldintzatuak antzeman ditu.

PROBA ERLAZIONATUA: JAUZI-IBILBIDEA AZTERTZEKO PROBA, ZALDIZ IBILI AURRETIK

– Zaldizkoa lurrean dagoela jauzi-ibilbidearen gaineko ikuskapen-proba praktikoak egindakoan, hautagaiak ahoz erantzungo die azterketa-epaimahaiak hurrengo gai hauei buruz egingo dituen galderari: trazaduraren hautaketa, oztopo konbinatuen arteko distantziak eta bide baldintzatuak, eta zaldia horien artean emango dituen urrats luzeen kopurua.

2. Hautagaia zaldiz ibili da, pistan, ekipamendu aproposa erabilia, eta eraginkortasunez nahiz teknika egokia baliatuz egin ditu jauzi-arietak, galopan.

- a. Proba egiteko ekipamendu aproposa aukeratu du.
- b. Hautagaia egokiro jesarri eta jarri da zaldi gainean.
- c. Jauzi-proba bati begirako beroketa aproposa egin du zaldiarekin.
- d. Trebetasun eta teknika nahikoa erakutsi du zaldia trazadura zuzenetik erritmoz, kadentziaz, galopa egokian, bultzadaz, orekaz eta arteztasunez gidatzeko.

- e. Trebetasun eta teknika nahikoa erakutsi du oztopoari heltzean, eta bulkada-puntu zuzenaz, orekari primeran eutsiz eta zaldiari egokiro lagunduz egin du.
- f. Trebetasun eta teknika nahikoa erakutsi du lurra hartzean; zaldia ondo orekatu du, eta erritmo eta bultzada egokiak berreskuratu ditu.
- g. Proba praktikoa egin bitartean, erantzun aproposak egikaritu eta zaldiaren portaera desegokiak zaindu ditu.

PROBA ERLAZIONATUA: JAUZI-PROBA PRAKTIKOA, ZALDI GAINEAN

- Zaldiz ibiltzeko ekipamendu aproposa hautatu.
 - Animaliarekin beroketa egin, zaldi gainean eta hiru aireetan arituta.
 - 1,20 metroko jauzi-proba egin, galopan, jauzietako diziplinaren araudiari jarraiki.
3. Hautagaia zaldiz ibili da, pistan, eta ekipamendu aproposa erabiliz, eraginkortasunez eta teknika egokia baliatuz egin ditu heziera-ariketak, hiru aireetan.
- a. Proba egiteko ekipamendu aproposa aukeratu du.
 - b. Hautagaia egokiro jesarri eta jarri da zaldi gainean.
 - c. Heziera-proba bati begirako beroketa aproposa egin du zaldiarekin.
 - d. Trebetasun eta teknika nahikoa erakutsi du zaldia gidatzeko trazadura zuzenetik erregularitasunez, erritmoz, erraztasunez, zalutasunez, kadentziaz, kontaktuz, bultzadaz, arintasunez, arteztasunez, otzantasunez, orekaz eta, aurrera gutxi eginez, jarrera egokiari eutsiz.
 - e. Trebetasun eta teknika nahikoa erakutsi du 3. edo oinarrizko mailako heziera klasikoko ariketa-sorta bat (reprisea) egin eta gainditzeko.
 - f. Proba praktikoa egin bitartean, erantzun aproposak egikaritu eta zaldiaren portaera desegokiak zaindu ditu.

PROBA ERLAZIONATUA: HEZIERA KLASIKOKO PROBA PRAKTIKOA, ZALDI GAINEAN

- Zaldiz ibiltzeko ekipamendu egokia hautatu.
- Animaliarekin beroketa egin, zaldi gainean eta hiru aireetan arituta.
- Indarrean dagoen zaldi-heziera araudiaren araberako 3. edo oinarrizko mailako proba bat egin, 60 x 20 metroko pista batean.

4. Hautagaiak landan zeharreko (kros) ibilbidea ebaluatu du zaldiz ibili aurretik; trazadura ezagutu eta bere ezaugarriak aztertu ditu, bai eta oztopo bakoitzarenak ere. Balorazio hori oinarri, erabaki teknikoak hartuko ditu zaldiz ibili bitartean.

- a. Banan-banan antzeman ditu jauzi bakoitzaren ezaugarriak.
- b. Ibilbidearen diseinu-ordena aztertu eta trazadurarik egokiena aukeratu du.
- c. Konbinazioa osatzen duten oztopoen arteko distantziak ezagutu ditu.

PROBA ERLAZIONATUA: LANDAN ZEHARREKO (KROS) IBILBIDEA AZTERTZEKO PROBA, ZALDIZ IBILI AURRETIK

– Zaldizkoa lurrian dagoela landan zeharreko (kros) ibilbidea ikuskatzeko proba praktikoak egindakoan, hautagaiak ahoz erantzungo die azterketa-epaimahaiak gai hauei buruz egingo dituen galderari: trazaduraren hautaketa, oztopo bakoitzari heltzeko modurik eta ainerik egokienak, konbinatutako oztopoen arteko distantziak eta zaldiak horien artean emango dituen urrats luzeen kopurua.

5. Hautagaia zaldiz ibili da landan zeharreko (kros) ibilbide batean, ekipamendu eta jantzi egokiak erabiliz, eta aire egokia eta teknika aproposa baliatu ditu bilakaerak eta jauzi-ariketak eraginkortasunez egiteko.

- a. Proba egiteko ekipamendu eta jantzi aproposak hautatu ditu.
- b. Hautagaia egokiro eseri eta jarri da zaldi gainean.

- c. Nazio-mailako lehiaketa osoko iraupen-proba bati ekin aurreko beroketa aproposa egin du zaldiarekin.
- d. Trebetasun eta teknika nahikoa erakutsi du zaldia gidatzeko trazadura zuzenetik erritmoz, kadentziaz, galopa egokian, bultzadaz, orekaz eta arteztasunez.
- e. Trebetasun eta teknika nahikoa erakutsi du landa-galopari abiadura egokian eta segurtasunez eusteko.
- f. Trebetasun eta teknika nahikoa erakutsi du oztopoari heltzean: bulkada-puntu zuzena aukeratuta, orekari primeran eutsiz eta zaldiari egokiro lagunduz egin du.
- g. Trebetasun eta teknika nahikoa erakutsi du lurra berriro hartzean; zaldia ondo orekatu du, eta berriz hartu ditu erritmo eta bultzada egokiak.
- h. Proba praktikoa egin bitartean, erantzun aproposak egikaritu ditu, bai eta zaldiaren portaera desegokiak zaindu ere.

PROBA ERLAZIONATUA: IRAUPEN-PROBA PRAKTIKOA, ZALDI GAINEAN

- Zaldiz ibiltzeko ekipamendu eta jantzi aproposak hautatu.
- Animaliarekin beroketa egin, zaldi gainean eta hiru aireetan arituta.
- Osoko diziplinari dagokion indarreko araudiari jarraiki, nazio-mailako lehiaketa osoko iraupen-proba bat egin, zero izar maila eta 1.500 metrokoa.

BERARIAZKO BETEKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAREN ANTOLAKETA:

1. AHOZKO PROBA:

1.1. JAUZI-IBILBIDEA AZTERTZEKO PROBA, ZALDIZ IBILI AURRETIK.

1.2. LANDAN ZEHARREKO (KROS) IBILBIDEA AZTERTZEKO PROBA, ZALDIZ IBILI AURRETIK.

2. PROBA PRAKTIKOA:

2.1. JAUZI-PROBA PRAKTIKOA, ZALDI GAINEAN.

2.2. HEZIERA KLASIKOKO PROBA PRAKTIKOA, ZALDI GAINEAN.

2.3. IRAUPEN-PROBA PRAKTIKOA, ZALDI GAINEAN.

BERARIAZKO PROBA EGITEKO OINARRIZKO BALDINTZAK: GUNEAK ETA EKIPAMENDUAK.

Guneak:

- 40-60 m² bitarteko ikasgela.
- Heziera-pista. Gutxienez, 60 x 20 metroko neurriak izan behar ditu.
- Gutxienez 2.400 m²-ko jauzi-pista.
- 1.000 m inguruko kros-ibilbidea egiteko landa-eremu garbia, oztopo finkoekin.

Ekipamenduak:

- Zaldi bat, gutxienez, bi hautagaiko, egunero; animaliak probak egiteko gaitasuna izan behar du.
- Heziera-pistarako hizki identifikagarriak.
- Espezialitateetarako ekipamendu osoak.
- Pistarako oztopo-sorta, 5 bertikal eta 5 sakon eta boleak muntatu ahal izateko.

- Gutxienez, 6 oztopo. Horietako 4, gutxienez, iraunkorrak izango dira, eta kros-proban muntatuko dira.